



Amurriorak 2005eko Araba Euskaraz ospatzen.

NORMALIZAZIOA

Arabak badu Euskararen Plan Estrategikoa

Hiru jomuga nagusi ditu planak: hizkuntz eskubideak bermatzea, euskararen gizarte erabilera bultzatzea, eta koordinazio eta lankidetzak ekimenak lantzea. 1.039.978 euroko aurrekontua du horretarako. Arabako zazpi kuadrillez gain, Trebiñu ere planaren barruan sartu dute.

SAIOA LABAKA

ORAIN ARTE ez da horrelako plan estrategikorik garatu Araban. Lurraldea zazpi eskualde administratibotan, zazpi kuadrillatan, banatuta dago (Aguraingo Kuadrilla, Aiarako Kuadrilla, Añanako Kuadrilla, Guardia-Arabako Errio-xako Kuadrilla, Gasteizko Kuadrilla, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Zuiako Kuadrilla). Trebiñuko Konderrria ere aintzat hartzen du Plan Estrategiko honek, administrazio-mugak gorabehera. Euskararen normalizazioan eragiteko oinarritzko lanabesa izateko helburuz sortu dute plana; lurraldeko euskara-politiken norabidea zedarritzeke. Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako auke-

rak bermatzeko beharrezko neurriak hartzea eta euskararen erabilera sustatzea dira planaren helburu nagusiak. Era berean, euskararen normalizazio bidean gizarte eragile eta herri erakundeen arteko koordinazioa lortzea eta elkarlanerako ekimenak jorratzea ere badira planaren xedeak.

Arabako errealitate soziolinguistikotik abiatuz, herritar guztien eskubideak errespetatuz egindako plana dela adierazi digu Lorena Lopez de Lacalle Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak. Eusko Jaurlaritzak 2006an egindako Inkesta Soziolinguistikotik ateratako datuen arabera, Arabako biztanleen %42,8k euskaraz komunika-

tzeko ahalmena dute. Horietatik %25 elebidunak dira, eta %17,8, elebidun hartzaileak. Azken horiek hizkuntza ulertzeko gai dira, nahiz eta ez ondo hitz egin. 125.000 pertsona, orotara. 2006ko datuak direla aintzat hartuz, eta urtetik urtera gero eta elebidun gehiago daudela ikusirik, etorkizun hurbilean elebidunak erdaldun elebakarrak baino gehiago izango direla aurreikus daiteke. Horren guztiaren aurrean, gizarteko eremu guztietan euskara normaltasunez erabili ahal izateko eskaintzak eta aukerak sortu nahi ditu Euskararen Foru Zerbitzuak.

Plana garatzeko erabilitako metodologia berria dela jakinarazi du Lacallek. Euskara Plana hainbat

gizarte eragileren parte-hartzearekin egin dute, hausnarketa estrategikoa erabiliz. Hau da, hainbat ikuspegitako herritarren eta entitateen parte-hartze zuzena izan da plana garatzeko hausnarketan, euskararen egoeraren diagnosian eta helburuak eta estrategiak proposatzeko prozesuan. Hausnarketa bideratzeko sormen teknika batzuk aplikatu dituzte eta zazpi kidez osatutako lan mahaiak osatu. Parte-hartze prozesu zabal horretan, euskararen inguruko taldeez eta erakundeek gain, Foru Aldundiko talde batzarkide guztiengana ere jo dute ekarpenak jasotzeko. "Ahalik eta aniztasun handiena bultzatu dugu, langarik ezarri gabe. Denontzako egina da Euskararen Plana", esan digu diputatuak.

Hausnarketa estrategikoko horretan zehaztu dituzte 2010-2013 urteetan landu beharreko zazpi esparruetarako estrategiak, helburuak eta ekintzak. Hauek dira esku hartzeko zazpi eremuak: gazteak eta aisia, helduen euskalduntzea, kulturgintza, merkataritza eta ostalaritza, familia transmisioa eta irakaskuntza, komunikabideak eta IKTak, eta administrazioa. Guztira, 75 ekimen jasotzen ditu planak. www.euskaraba.com webgunean kontsulta daiteke Euskararen Plan Estrategikoaren agiria, eta bertan ematen da ekintza guztien berri. Bereziki, bi ekintza nabarmendu dizkigu Lacallek.

Euskara teknikarien sarea

Ekainean hasi ziren egitasmo honekin lanean, orain planak bere baitan hartu du eta testuingurua eman dio. Arabako Foru Aldundiaren esku dago ekimenaren finantzaketa gehiena; %80, Foru Aldundiaren esku, eta beste %20a udalen esku. Orain arte Gasteizko, Laudioko, Amurrioko,



JUANAN RUIZ / A P

Lorena Lopez de Lacallek jakinarazi digunez, Araban oraindik euskaraz ez dakitenetatik %23 hurbildu dira noizbait euskarara, eta %21 euskara ikasteko prest leudeke, horretarako baldintza egokiak edukiz gero.

Aramaioko eta Aguraingo udalek baino ez zuten euskara teknikaria. Ekimen honi esker, Arabako zazpi kuadrilletan ari dira lanean euskara teknikariak. Trebiñun, berriz, sustatze lana ari dira egiten.

Lurralde osoko euskararen egoeraren ikuspegi osoa izateko jarri dute abian ekimen hau. Eskualde batetik bestera alde handiak daude euskararen erabilerari dagokionez, eta orain arte egindako ekintzak ez dira guztiz modu egituratuan egin, Lacalleren esanetan. Hori dela eta, kuadrilla bakoitzean konexio puntu bat izatea, informazio iturri bat edukitzea, beharrezkotzat jo dute. Kuadrilletako teknikari hauen bitartez tokian tokiko euskararen egoera zein den jakitea eta eskualde bakoitzeko beharretara egokitzeko neurriak zehaztea lortuko da. Halaber, teknikariak erakundeak eta tokian tokiko gizarte sarea batuko dituen bitartekoa izatea nahi dute. Araban euskara normalizatzeko ekimen garrantzitsua da, Lacalleren ustez, euskararen sustapena modu egituratuan gauzatzeko. Badirudi Eusko Jaurlaritzaren interesekoa ere gertatu dela

ekintza; ekimena, berritzailea izateaz gain, lurraldea egituratzeko baliagarria delako.

www.euskaraba.com

Arabako euskararen ataria sortu berri dute sarean. Arabako zazpi kuadrillen eta Trebiñuren inguruko informazioa ematen da bertan eta euskararekin lotura duten albiste eta atal ugari topa daitezke (Euskara Araban, Euskararen agenda, Euskalduntzea, Baliabideak, Esteka interesgarriak eta abar). Bi helburu nagusi ditu webgunek. Batetik, lurraldeko euskararen jarduera koordinatzea; jardueri buruzko informazioa emateko eta euskararen topagune izateko. Esaterako, webguneko agenda atala euskaraz antolatzen diren jardueren erakusleho izateko sortu da, Araba osoan antolatzen diren ekintzen berri edonork jakin ahal izateko. Jarduerak atalka sailkatuta daude. Era berean, herritarrek ere euren proposamenak eta ekitaldien inguruko informazioa bidal dezakete webgunera.

Bestetik, euskarazko kultura ezagutzen ez duenari bertara hurreratzeko aukera eskaini nahi zaio. Euskaldunak ez direnak erakarri egin nahi dituzte euskaldura. Hala, webguneko edukiak gaztelaniaz ere jarri dituzte, gizarte berean batera bizi diren bi hizkuntza komunitateren arteko zubi tresna gisa planteatuta. Lorena Lopez de Lacalle jakinarazi digunez, Araban oraindik euskaraz ez dakiten pertsona horietatik %23 hurbildu dira noizbait euskarara, eta %21 euskara ikasteko prest leudeke, horretarako baldintza egokiak edukiz gero. Euskarara hurbiltzeko borondatea badagoela erakusten dute datuok. ■

Babeslea: HABE

HADE
Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 eskalategi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro
euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net